

PRENTSA OHARRA (2002-03-21)

SCH bankuaren eta Getxoko Udalaren errotulazioak salatu ditu EHEk
Euskal Herrian Euskaraz-ek Euskara Batzordea sortzeko eskatu dio Getxoko Udalari eta getxoztarrak Euskara Plangintza baten alde manifestatzera deitu ditu

Erromoko Euskal Herrian Euskaraz taldeak gaur goizean Getxoko Udalaren erregistroan udalerrri mailako Euskara Batzordea sortzeko eskaera aurkeztu du. Honekin batera, Erromo eta Areetan dauden 18 errotulu zein bideseinale erdaldun berehala aldatzeko ere eskatu du EHEk.

Argazkiez lagunduta, Zugatzarteko umeentzako parkean dauden 5 errotulu erdaldunak kentzeko aldarrikapena egin du EHEk. Kasua oso larritzat jo du EHEk, parkearen errotulazio guztia erdara hutsean izateak txikitatik ume euskaldunei gizarte honetan beren hizkuntzak duen "garrantzia" erakutsiko omen baitie. Kasu honekin batera, Getxoko kaleetan euskaldunon hizkuntz eskubideei iseka egiten dieten beste errotuluak salatu ditu: orain dela 6 hilabete jada salatutako bi zamalaneko seinaleak (Areetako postetxearen aurrean eta Kale Nagusian); Areetako merkatu ondoko lanen berri ematen duen errotulu elebidun lotsagarria; Gorbeia, Klub, Kalebarria, Paulino Mendibil eta Tomas Olabarri kaleen plaka erdaldun batzuk; Bizkaiko Zubirako errepidean jarririko mezuak; eta Santander Central Hispanok ipinitako errotulu berriak non Udalerriari "Guecho" esaten zaion.

SCHri dagokionez, erakundeak Areetan dituen bi sukurtsaletako zuzendariei errotulazioa aldatzeko gutun bana eman die EHEk.

Azken urteotan euskararentzako zenbait berrikuntza pozgarri egon bada ere, Getxoko errotulazioetan, irakaskuntzan, kulturaren, aisialdian, osasungintzan, justizian, administrazioan eta arlo guztietan euskara oraindik bigarren mailako hizkuntza da egun. Ez du benetako ofizialtasunik.

Honen aurrean, euskara lehentasunezko gai politikotzat onartu behar da eta, era berean, euskaldunek eta euskarak dituzten eskubideak eta beharrak asetu. Horretarako tresna ezinbestekoa litzateke Getxon Euskara Plangintza. Plangintza hau guztion artean egin behar dugu, eta bertan, eratu gabe dagoen Euskara Batzordean, euskalgintzako taldeek, bestelako gizarte eragileek, Udalak eta udalerriko alderdi politikoek era antolatuan euskaldunon eskubideak betetzeko zein euskara zabaltzeko lehentasunak finkatu eta neurriak hartuko lituzkete.

Hori dela eta, Udal Gobernuari Euskara Plangintzaren diseinuaren lanak martxan jarri ahal izateko Euskara Batzordea sor dezan eskatu dio EHEk.

Horregatik ere, Euskal Herrian Euskaraz-ek datorren iganderako, martxoak 24, antolatu duen manifestaldi alaitzuan parte hartzera deitu ditu getxoztarrak. Manifestaldiaren leloa "Getxok Euskara Plangintza behar du. Egin dezagun guztion artean" izango da eta ibilbidean zehar euskararen lagun ez direnek ezabatutako bide seinaleak bermargotuko ditugu trikitixen doinupean. Manifestaldia 12etan irtengo da Areetako Xake plazatik. Ostean nahi dutenak Berbots Erandioko Euskara Taldeak urtero antolatu ohi duen Kanpomartxo herri jaira joan ahal izango dira. Aurten Asuan ospatuko da.

Erromoko Euskal Herrian Euskaraz

Oharrak: informazio gehiagorako edota argazkiren bat eskuratzeko 650806880 (Iñigo) telefonora dei dezakezu. Bide batez, igandeko manifestaldiaren berri ematen dizugu, nahi izanez gero bertan kazetari lanak egin ditzazun.

Agur bero bat.